

Bilbon emakume baten hilketa matxista salatzen dugu

Pasaia Udalak salatu nahi du emakume baten hilketa matxista bart gauean Santutxun, Bilbon. Senideei zein gertukoei elkartasuna adierazteaz gain, hilketa salatzeko Euskal Herriko mugimendu feministak deitutako mobilizazioekin bat egiten du udalak.

2024. urtean indarkeria matxistak Euskal Herrian utzitako hirugarren biktima da; laugarrena Euskal Herrikan kanpo izandako emakume euskaldun baten hilketa kontuan izanda. 2003tik hona, 122 emakume eta 12 haur hil ditu bortxa matxistak.

Gertakari hori dela-eta, Pasaia Udaletik publikoki eta aho batez adierazi nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten dugula. Horrelako gertaerak ez ditugu gure gizartean onartzen, eta erakunde, elkarte eta herritarrok lanean jarraituko dugu, indarkeria matxistarik gabe bizi gaitezen.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista gehiagorik ez!

Denunciamos el asesinato machista de una mujer en Bilbao

El Ayuntamiento de Pasaia quiere denunciar el asesinato machista de una mujer la pasada noche en Santutxu (Bilbao). Además de mostrar su solidaridad a familiares y allegados, el consistorio se suma a las movilizaciones promovidas por el movimiento feminista de Euskal Herria para denunciar el asesinato.

Se trata de la tercera víctima de violencia machista en Euskal Herria en 2024; la cuarta si tenemos en cuenta el asesinato de una mujer vasca ocurrido fuera de Euskal Herria. Desde 2003, 122 mujeres y 12 niños han sido asesinados por violencia machista.

Ante este hecho, desde el Ayuntamiento de Pasaia queremos mostrar públicamente y de manera unánime nuestro rechazo a la violencia contra las mujeres. Este tipo de hechos no tienen cabida en nuestra sociedad y, por tanto, seguiremos trabajando, tanto desde las instituciones y movimientos asociativos, como desde la ciudadanía, para poder vivir libres de violencia machista.

¡No más violencia machista contra las mujeres!

Pasaian, 2024ko irailaren 12an